

Taxiaren Udal Araudia, Basauri udal barrutikoa, 2003ko otsailaren 25eko osoko bilkuran onetsia.

ARRAZOIEN AZALPENA

Beharra zegoelarik, alde batetik, taxi-alorreko ordezkariak horrela eskatu dutelako, eta bestetik, 1966ko udal araudia eta horrek izandako aldaketa guztiak indarrean dagoen arautegira egokitu behar zirelako, -bereziki, ekaianaren 29ko 2/2000 Legea egokitu beharra, Turismoko Ibilgailuetan, Bidaiarien Hiriko eta Hiriarteko Garraio Publikoa arautzen duena-, eta beraz horren ondorioz, Basauriko Udalak, bere ekumenak erabiliz, Araudi honen bidez, aipatu zerbitzuak arautzen ditu, bere udal barruti barruan, eta horretan adierazten diren berezitasunen barruan.

I. KAPITULUA ARAU OROKORRAK

1. Artikulua. Araudiaren helburua.

Araudi honek duen helburua da, bidaiarien hiriko garraio publikoko zerbitzuak arautzea, hain zuzen, Basauriko udalerrian ibilgailu-taxietan egiten dena, eta beste gauzen artean honako hauek arautzen ditu, hots, lizentziak eman eta erabiltzeko erregimena, eta baita, hiriko garraioen lizentziak aldatu eta baliogabetzea ere.

2. Artikulua. Oinarri orokorrak.

1. Pertsonen garraio publikoa ibilgailuz eskaini ahal izateko, beharrezkoa da auto-taxiaren lizentzia bidez baimendua egotea.

2. Gidari gisa, auto-taxiz garraioa eskaini ahal izateko, beharrezkoa da, gidatzeko agiri-az gain, hori Zirkulazioko Kodearen bidez emana izan behar du bestalde, auto-taxiaren gidatzeko lizentzia, zeina Basauriko Udalak emana izan beharko duen.

II. KAPITULUA

LIZENTZIEI DAGOKIEN BEZAINBATEAN

3. Artikulua. Lizentzien kopurua eta mota.

Udalerrian izango den lizentzia kopurua, hogeita zortzi, finkatzen da, eta horiek guztiak A motakoak izango dira (auto-taxia).

4. Artikulua. Lizentziei buruz.

1. Lizentziek, bakarrik, garraio publikoko jardueraren egikaritza babestuko dute, beti ere, turismoko ibilgailuetan egiten dena, eta titular bakarrari, eta baldin eta, gidari bakarrak eginga eta ibilgailu bakar eta zehatz batez eginga bada.

Pertsona bat ezingo da, inoiz, lizentzia bat baino gehiagoren titular izan.

2. Lizentziak ezingo dira besterendu, hurrengo kasutan izan ezik:

- a) Titularra hiltzeagatik, bere ezkontide alargunaren edo oinordeko legitimoen faboretan.
- b) Jubilatzearen.
- c) Ezkontide alargunak edo a) atalean aipatutako oinordekoek lizentzia ezin dutenean ustiatu, jarduera bakar eta eskusibo bezala.
- d) Titularrari lanbidea egikaritzeko ezintasuna sortzen zaionean, dela gaisotasunagatik, dela istripuagatik, edo ezinbesteko arrazoi bezala kalifika daitekeen beste zioengatik.
- e) Lizentziaren titularrak hamar urte baino gehiagoko antzinatasuna duenean. Horrek besterendu ahal izango du, udal erakundeak baimendu ondoren, baina ezingo du hurrengo hamar urteko epean lizentzia berririk lortu.

- f) Lizentziaren titularrak, bere ibilgailu propioaren gidaria izanik, edozein inguruabar dela-ta, gida-baimena behin-betirako galduko balu, salbu eta horretarako kausak, berekin, lizentziaren iraungipena edo baliogabetzeko deklarazioa lotuta izango balu.

3. Basauriko Udalak lizentzien erregistro edo fitxeroa izango du, hain zuzen, Kontratazio, Zerbitzuak eta Trafikoa Atalean, eta hor, titularrei, horien ibilgailuei eta gidariei dagozkien inguruabar desberdinak idatziz jasoko dira.

Edozein modutara, aipatu Erregistro edo fitxero horretan, hurrengo inguruabar modukoak jaso dira:

1. Ibilgailuaren motorrari dagokion zenbakia eta marka, matrikula eta potentzia.
2. Ibilgailuaren plaza kopurua, gidariarena barne dela.
3. Kontratu egilearen izena, abizenak, helbidea eta telefonoa.
4. Udal lizentziaren zenbakia eta taxiaren geralekua.
5. Gidariaren izena, abizenak, argazkia eta helbidea.

Halaber, hurrengo inguruabar guztiei buruzko edozein gai jasoko da: lizentzien transmisioak, material aldaketa, zehapenak, erreklamazioak, berraztertzei buruzko emaitzak, eta interesgarri sueta daitekeen beste edozien inguruabar.

Bai transmitatzaileak bai eskuratzaileak bete behar dituzten baldintza espezifikoak, araudi bidez garatuko dira. Edozein modutara, besterentzeak, ibilgailu berari legozkion titulu-multzoari, eragingo dio.

III. KAPITULUA

GARRAIOLARIEI BURUZ

I. Atala

Gaitasunari buruz

5. Artikulua. Garraiolariak.

Lege honen arabera, garraiolariak direla jotzen da, dagokion lizentziaren titular, eta bere

kasuan, baimenaren jabe izanik, lehen artikuluan aipatzen den garraio-eragiketak egiten dituztenak.

6. Artikulua. Gaitasun profesionalari buruz.

1. Araudi honetan aipatzen diren lizentzien gaineko titular izan litezke, ezen hurrengo baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen duten pertsona fisikoak:

- a) Araudi honek eta aplikagarri zaion gainontzeko arautegiek ezarritako obligazioak betetzea, horiek izan daitezkeelarik, zerga, lan, gizarte edo administrazio izaerakoak.
- b) Garraioa egiteko erabiltzen diren ibilgailuen baldintza teknikoak betetzen direla egiaztatu beharko da, hain zuzen, indarrean dagoen arautegiak eskatzen dituenak.
- c) Erantzukizun zibileko aseguru hitzartuta eukitzea, egiten den garraio-zerbitzua dela-ta, erabiltzaileei eragin diezaizkieketen kalte eta ezbeharren aurrean. Baita, derrigorrezkoa da aseguru-poliza hitzartuta eukitzea, eta horrek, legislazio espezifikoak derrigortzen dituen gainontzeko arriskuak barne hartuko ditu.

2. Baldintza horien bat-bateko hausteak, aipatu lizentzien iraungipena ekarriko du.

3. Auto-taxiaren lizentziei atxikitako automobil-ibilgailuak, horiek gidatzeko udal baimena dutenek gidatu ahal izango dituzte, hain zuzen, horiek bakarrik eskusiboki.

Horretarako, Udalarai egoki iruditzen zaionean, udal baimena ateratzeko azterketetarako deialdia egingo du. Baimen hori, Alkate Jaunak luzatua, hurrengo baldintza hauek betetzen dituztenek eskatu ahal izango dute:

- a) B2 motako edo maila goragoko gida-baimenaren jabe izatea, Trafikoko Buruzagitza eman.
- b) Lanbidea normaltasunez egikaritzen utziko ez dion edo zailduko ez dion gaisotasun infekzio-kutsakorrik edo eragozpen fisikorik ez izatea.

c) Hautagaiek egin beharko duten gaitasun-proba gainditzea, eta hori honetan datza:

1. Zuzen eta askitasunez erantzutea egindako galderei, eta horiek, herriko kale, eraikin, monumentu, ibilbide, eta udalak egoki lerizkion gainontzeko beste edozeini buruzko kokapenaren gainekoak izango dira.
2. Lau ibilbide, zuzen, burutu beharko dira, non irteera guneak, helmugakoak eta ibilbidekoak ongi adierazi beharko diren, eta horietako kale, plaza, eta ibilbidean dauden monumentuen izenak eman beharko diren.
3. Araudi honen barneko lau galderei erantzen beharko zaie.

Gidatzeko udal baimena iraungi eta baliogabe geratuko da, interesatuak Zerbitzu Publikoko ibilgailuak gidatzeko jardura 5 urtez egikaritu gabe daramatzanean.

II. Atala

Gidariaren obligazioak

7.Artikulua. Jardueraren garapena, eta hori egikaritzeko baldintzak.

1. Auto-taxiko lizentziaren titular den pertsona orok, zerbitzua pertsonalki eskaintzeko obligazioa izango du. Bakarrik salbuespen gisa ustiatu ahal izango da lizentzia, soldatako gidaria kontratatuz, hain zuzen, lanerako ezgaitasun iragankorra ematen denean, eta zerbitzua pertsonalki eskaintzea eragotzi lezaketen egoerak suertatzen direnean, baldin eta horiek aldibateko izaerakoak balira. Inoiz ez da baimenduko soldatako gidari bat baino gehiago kotratatzen.

2. Izaera orokorrearekin, lizentzia eta baimen baten titularra den pertsona orok zerbitzua eskaintzen hasteko obligazioa izango du, horiek ematen zaizkiola jakinarazten zaionetik hasi eta 60 eguneko gehieneko epean, salbu ete, horrela ez egiteko arrazoiak idatziz ez balitu zurituko, eskumena duten organoen aurrean.

3. Zerbitzua, erabateko arduraldiko erregimenean, eskaini beharko da.

4. Zerbitzuaren eskaintza egitekoan, ordenantza bidez ezarriko den erregimena, hots, ordutegi, txanda, oporraldi eta etendura-eppei dagokiena, zehazki, bete beharko da.

8. Artikulua. Gidariaren obligazioak.

Zerbitzu honetara atxikitako ibilgailu-automobilien gidariak, hurrengo obligazio hauek izango dituzte:

1. Bidaiei ibilgailua libre utzi bezain laister, horren barmeldea berrikustekoa, eta ahal izango balitz, une horretan bertan, ahantzita utzitako objektuak entregatzekoa.

Ez balitz posible izango horrela egitea, objektu horiek Udaltzaingoaren Komisaldegian entregatu beharko dira hogeita lau orduren barruan, eta hor adierazi beharko da, zerbitzua zein ordu zehatzetan egin zen, zein lekutan amaitu zen, eta ibilgailuan eramandako pertsonaren edo pertsonen deskripzio gutxi gorabeherakoa, bestalde, entregatutako objektu galduei dagokien egiaztagiria eska daiteke.

2. Zaurituak gertatu diren edo istripua jasan duten pertsonak garraiatu beharko ditu, horretarako eskaria jaso lezaketen bakoitzean. Garraiatzearen ondorioz, ibilgailuaren barnean narriadurarik gertatuko balitz, kalte hori zaurituaren edo istripua jasan duenaren kontura izango da, edo horren ordezkotako legalen kontura. Kaudimengabeak izango balira, inguruabar hori zuritu ondoren, eta ez balego hirugarren pertsona erantzulerik, Udalak ordainduko ditu, baldin eta hurrengo hogeita lau orduren barruan, ibilgailua Udaltzaingoei aurkeztuko balie, eta bai zerbitzua eta bai narria zurituko balira.

3. Taxi-geralekuetako bakoitzean, lehen postua betetzen duten auto-taxien gidari guztiek obligazioa dute, istripu larria edo edozein motatako katastrofea gertatzen den bakoitzean, ezbeharrak gertatu den lekura joateko ahalik eta arinen, eta behin hor, agintarien aginduetara jarri behar dute, beharrezkoa balitz, beren zerbitzuak eskaintzeko helburuz.

9. Artikulua. Lanegunak, atsedena eta oporrak.

1. Lizenzien titular guztientzat, egunean, gehienezko hamabi orduko laneguna ezartzen da.

Horretarako udal baimena izanik, beren zerbitzua Bilboko aireportuan eskaintzen dutenak, hurrengo artikuluan arautzen den bezala, hamabi orduko lan-sistematik at geratzen dira, zerbitzua aipatu aireportuan eskaintzen duten bitartean.

2. Gidariek, derrigorrez, astean egun bateko atsedena hartu beharko dute (astelehenetik ostiralera); eta urte osoan, egun berean hartu beharko dute atsedena. Hurrengo urtean, atsedena-eguna, asteko hurrengo egunera aldatuko dute.

Atsedenaldiari hasiera, jaieguna bezala izendatua izan den eguneko 00:00an emango zaio, eta egun bereko 24:00an amaituko da.

Asteburuetan, txandaka lanegingo da, hau da, asteburu batean bai eta bestean ez.

Gutziz debekatua dago, atsedena egun gisa izendatutako egunetan zerbitzua eskaintzea, hurrengo jaieguna hauetan izan ezik, hots: Gabonak, Urteberri, Errege eguna, herriko jaietako San Fausto eta San Migel, eta San Isidro jaietan..

3. Gidariek urtean, gutxienez, 15 egun jarraian oporrak hartzeko obligazioa izango dute.

10 Artikulua. Bilboko Aireportuan eskaintzeko Zerbitzuak.

1. Bilboko aireportuan taxi-zerbitzua eskaintzea, hasteko, borondatezkoa izango da.

2. Urtero, epe bat irekiko da, aipatu zerbitzua eskaini nahi luketen taxi-lizenziaren titularrek, Administrazio honen aurrean, hori eskatzeko aukera izan dezaten, eta administrazio honek, jarraian, zerbitzu-egutegia prestatuko du.

3. Behin zerbitzua, aireportuan, eskaintzeko borondatea agertutakoan, obligaziozko izaera izango du, eta horren ondorioz, data berean ezingo da Basauriko udalerrian zerbitzurik eskaini.

4. Aireportuan, zerbitzua eskaini ahal izango da, baita, derrigorrezko atsedenaldiarekin bat etorritako kasuan ere,.

11. Artikulua. Gutxienezko zerbitzuak.

Lizenzien titularitatea dutenek proposatutako zerbitzu-egutegiak bermatu egin beharko du, behin Udalak onetsitakoan, hain zuzen, Alkate Udalburuaren Dekretu bidez, lizenzien % 40a 6:00tik 24:00rako ordutegian zerbitzua eskaintzen ibiliko dela, eta %15a 00:00tik 6:00ra.

12. Artikulua. Udalaren eskumenak.

Basauriko Udalak eskumena izango du, antolaketako neurriak ezarri eta zerbitzuari dagokion ordena jartzeko, hain zuzen, ordutegi, egutegi, atsedenaldi eta oporraldiei dagikienez, behin enpresarien eta langileen elkargo profesionalei entzun ondoren.

Aipatu gaiak, dagokion Ordenantza bidez arautuko dira.

IV. KAPITULUA

AUTO-TAXIEN LIZENTZIARA ATXIKITAKO IBILGAILUAK

13. Artikulua. Ibilgailuen gutxienezko baldintzak.

Auto-taxien lizentzira atxikitako ibilgailuek, edozein kasutan, hurrengo baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Matrikulatuta, eta zirkulatzeko gaituta egon behar dute.

b) Indarrean egon beharko du azken ikuskapen teknikoak, hain zuzen, legearen arabera, aldioro egiten direnetatik azkenekoak.

14. Artikulua. Ezaugarri orokorrak.

1. Auto-taxien lizentziari atxikitako ibilgailuek, eta ezaugarri teknikoei buruz izan behar duten fitxan, turismo gisa sailkatuta egon behar dute, eta edozein modutara, hurrengo ezaugarri hauek izan behar dituzte:

a) Kolore zuriko karrozeria, sartu-atera eta funtzionamendu errazeko ateak, mugimenduak gozoki egiteko aukera egon dadin.

b) Ibilgailuaren gutxienezko dimentsioari, barneko ezaugarriari, eta eserlekuen ezaugarriari dagokienez, erabiltzaileei, mota honetako zerbitzuetan, ohikoa den segurtasun eta erosotasuna eskaintzeko modukoak izango dira.

c) Ahalik eta argitasun, ikuspen eta aireztapen onena lortzeko helburuz, bai ateetan bai ibilgailuaren atzeko partean, beharrezko litzatekeen lehiatila-kopuru nahikoa euki beharko du, lehiatiletako beira, bestalde, gardena izango da, eta ateetan leudekeenak, erabiltzaileak bere borondatez ireki eta itxi lezazkeenak izan beharko dute.

d) Barneko argiteri elektrikoaren instalazioa.

e) Su-itxalgailuak eraman behar dituzte ibilgailu barruan.

f) Gutxienez, 12 CV zerga-potentzia izan behar dute.

g) Ibilgailuaren tapizeria egoera onean egon beharko du, narriadurarik gabe, modu horretan ibilgailuaren barnean, garbitasun gutxiren eta kontserbazio txarraren itxurarik egon ez dadin.

h) Taximetroa eta seinalatzaile-modulua euki beharko dute.

2. Minusbaliatuei destinatutako ibilgailuen ezaugarriak, zerbitzuak eskatzen dituen premia berezietara, egokitu beharko dute.

15. Artikulua. Plaza kopurua.

Arau orokor gisa, ezingo da 5etik gorakoa izan, gidariarena barne dela, eta gehienezko edukiera horri buruzko adierazpena, bai zirkulazioko baimenean, bai ibilgailuaren ezaugarriari buruzko Egiagtagirian, jasoko da.

16 Artikulua. Pintura eta bereizgarriak.

a) Ibilgailuak kolore zurikoak izango dira, eta aurreko ate bakoitzean, eskulekuak doazen parean, kolore berdeko zerrenda eramango dute, 65 cm.ko luzera eta 10 cm.ko garaierakoa, eta zerrenda horren erdi-erdian, Basauriko udalerraren logotipoa joango da inprimaturik.

b) Halaber, logotipoaren azpian eta ibilgailuaren atzealdean, udal lizentziaren zenbakia jarriko da, zenbaki horiek 5 cm. garaiera izango dute eta zabalera proportzionala, eta beltzean jaoango dira.

c) SP plaka eraman beharko dute, araututa dagoen neurrikoa.

17. Artikulua. Taximetroak.

Taximetroak egokiro egiaztatua eta zigitatua egon beharko du. Ibilgailuko agente-mahaiaren gainaldean jarriko da, eta une orotan, bidaiariak

tarifaren edo prezioaren irakurketa ikusteko moduan jarria egongo da, eta funtzionamenduan egoten denean, argiztapena piztuta egon behar du.

Bai taximetroa bai seinalatzaile-modulua auto-taxien erabilera eskusiboko garraio-zerbitzu guztietan funtzionamenduan jarrita egongo dira, bai hiribarneko bai hiriarteko ibilbideetan.

Taximetro-aparatu guztiak, eskumena duten beste agintari batzuk egin ditzaketen ikuskapen edo azterketen kalterik gabe, Udalak edozein unetan ikuska ditzake.

18. Artikulua. Kontroleko sistemak.

Laneguna eta lan-egutegia aplikatzeko eta hori kontrolatzeko, lizentziaren titularitatea dutenek, beren ibilgailuetan, tresna elektronikoa jarriko dute, kanpotik ikus daitekeena, eta horrek, gutxienez, hurrengo funtzio hauek barne hartu behar ditu:

a) Lansaioaren definizioa.

b) Laneko lanegunaren definizioa, asteko atsedenaldiko egunak zehaztuz

19. Artikulua. Kontroleko sistemaren ezaugarriak:

Ibilgailuetan instalatuko den kontrol-sistemak industriako baimen guztiak izan beharko ditu, eta egokiro homologatua egon beharko du, eta hurrengo ezaugarriak izango ditu:

a) Dagokion txandako hondar-denbora kontsultatzea ahalbideratuko du.

b) Iruzur posibleen aurka babesturik egongo da, modu horretan, ezinezkoa izan dadin, lan-egutegitik kanpo zerbitzurik eskaintzea.

c) Kanpoaldean, ordutegiaren kontrol-seinalatzailea jarri beharko da, agintariak, funtzionarioek, erabiltzaileek eta sektoreak berak kontrola dezaten, eta horrek adierazi beharko du:

- Txanda betetzeko geratzen den denbora.

- 00:00 seinale keinukaria, baldin eta lan ordutegia betea izango balitz, eta horrek taximetroa

blokeatu egingo du, eta ezingo du tarifarik eman.

- Atsedeneke egunetan, errepikatzaileak 00:00 keinukaria azalduko du.
- Errepikatzaileak beti finkoa eta ikusteko moduan egon behar du, baita atsedeen-egunetan ere.

20 Artikulua. Lan denboraren neurketa.

1. Lan-txanda irauten duen garaian erabili ez den denbora, ezingo da hurrengo lanegunetara aldatu.

2. Baldin eta lan-txanda taximetroa okupatuta legokeela amaituko balitz, zerbitzua amaitu arte funtzionamenduan jarraituko du.

3. Erlojua itzalita egon daitekeen gutxienezko denbora hirurogei minutukoa izango da. Erlojua, aipatu denbora igaro baino lehen piztuko balitz, hirurogei minutu horiek deskontatuko egingo dira

Baldin eta errore batengatik, erlojua itzali egingo balitz, berriro pizteko, minutu bateko tarte egongo dela erabakitzen da, aurreko atalean aipatu den hirurogei minutuko epea neurtu beharrik gabe.

4. Gehienez, hogeita hamar kilometro egin ahal izango dira erlojua itzalita, lansaioa hasi aurretik, denbora hori kontuan hartu gabe.

Behin lansaioa hasi ondoren, ibilgailuak zirkulatzen ematen duen denbora osoa, lansaio horretatik deskontatuko da, baina hala ere ibilgailuak, gutxienez, 5 ordu geratuta emango lukeen kasuan, kasu horretan, hogeita hamar kilometroko ibilbide gehigarria egiteko aukera izango luke.

5. Erlojuaren eta errepegigailuaren arteko lotura galduko balitz, txanda amaitu egin dela joko da.

21. Artikulua. Baimenaren menpean dagoen ibilgailua aldatzea.

Badago aukerarik auto-taxien baimenera atxikitako turismoko ibilgailuak, beste ibilgailu batzuen bidez ordezkatzeko, Araudi honetan jasotzen diren ezaugarri bereko beste ibilgailu batzuen bidez egiten bada, eta beti ere, aldaketa horri, aurretik, Udal honek bere baimena ematen badio, eta antzinako

ibilgailuaren ordezkioak bi urte baino gehiago ez dituen kasuan.

V. KAPITULUA ZERBITZUA ESKAINTZEKO MODUA

22. Artikulua. Zerbitzua kontratatzea.

Araudi honetan babestuta eskaini daitezkeen zerbitzuak, izaera orokorrarekin, ibilgailuaren edukiera osoa kontratatzearen bidez egin beharko da.

23. Artikulua. Zerbitzuaren eskaintza.

1. Garraiolariak, eskatzen dioten zerbitzua eskaintzeko, obligazioa du.

2. Garraiolariak ezingo du garraitu, ibilgailuarentzat baimendurik dagoen plaza-kopurua gaindi lezakeen bidaiari-kopururik.

3. Garraiolariak zerbitzua eskaintzeari uko egin diezaioke, baldin eta eskari horrek legezko ez den helburua izango balu, eta baita, arrisku-egoera suposatzen duenean, hain zuzen, bai bidaiarien, bai gidariaren bai beste pertsona baten, edo bai ibilgailu beraren segurtasun edo osotasun fisikoa arriskuan leudekenean.

4. Garraiolariak zerbitzua eskaintzeari uko egingo balio, erabiltzaileari, idatziz, uko horri buruzko argibideak eman beharko dizkio, baldin eta hark eskatuko balizkio.

5. Eskola-garrioari edo adin txikikoen garraiori dagozkion zerbitzuak egingo liratekeen kasuan, aipatu garraioen segurtasuna arautzeko dauden arauen arabera, aginduzkoak izango liratekeen baldintza guzti horiek bete beharko lirateke.

6. Istripu edo narriadura emango litzatekeen kasuan, hala nola ibilgailua gerarazia izaten denean zirkulazioko agente batek aginduta, ohartarazia edo zigortua izateko xedez, taximetro-tresnaren bandera ezaurrera-ezatzerako puntuan jarri behar da. Baldin eta zerbitzua ez balitz burutuko, erabiltzaileak, kontatzaileak adierazi lezakeena bakarrik, ordaintzeko obligazioa izango du, bandera jeisteagatik legokion kopurua kenduta.

24. Artikulua. Dokumentazioa.

Zerbitzua eskaintzen den bitartean, auto-taxien gidariek hurrengo dokumentu hauek berekin eraman behar dituzte:

1. Ibilgailuei buruzkoak:

- Udal lizentzia.
- Ibilgailuaren zirkulazioko baimena.
- Indarrean legokee mugagabeko erantzukizun zibileko aseguru poliza.
- Taximetro aparatoaren egiaztapen-libreta.
- Udalerriatik kanpo zerbitzua egiteko garraio-txartela.

2. Gidariari buruzkoak:

- Ibilgailu mota horietarako, Zirkulazioko Kodeak eskatzen duen motako gidabaimena.

- Udal gidabaimena.

3. Zerbitzuari buruzkoak:

- Erreklamazio liburua, eredu ofizialaren arabera.
- Ekainaren 29ko Eusko Jaurlaritzaren 2/2000 Legearen ale bat, horrek arautzen baitu Turismoko Ibilgailuetan, Bidaiarien Garraio Publikoa, bai Hirikoa bai Hiriartekoa.
- Udal Araudi honen ale bat.
- Zirkulazio Kodearen ale bat.
- Indarrean dauden tarifak.
- Hurrengo zerbitzuetako helbide eta kokapenak: Sorospen-etxe, erietxe, poliziaren komisaldegia, suhiltzaile eta urgentziazko gainontzeko zerbitzu, eta Zentro Ofizialetakoak.
- Udalerriaren planoak, horren hiri barrutiko mugekin, horietara arteko gehigarri zehatzak egiaztatzeko aukera izan dezan, zeina erabiltzailearentzat ikusteko moduan egongo den.
- Kobratutako kopuru osoa jasota agertuko duten errezibuak, itxaron-orduak, udal barrutitik kanpora egindako irteerak.

25. Artikulua. Zerbitzua eskaintzeko obligazioa.

1. Zerbitzua eskaintzen ari litzatekeen eta egoera "librea" legokeen gidariak, zerbitzua egiteko eskaria pertsonalki edo telefono bidez jasotakoan, ezingo lioke uko egin, hori egiteko kausa zuzena izan gabe.

2. Gidariak ezingo diete bezeroei, ibilgailuan, maleta edo ekipaia normaleko beste fardelak eramateko aukera galarazi, baldin eta horiek ibilgailuaren parrila edo maletategian kabitzen badira, eta hori ez badute kaltetzen, eta indarrean leudekeen arauak ez balituzte hautsiko.

26. Artikulua. Debekuak.

Araudi honek araututako zerbitzu publikoei atxikitako automobil-ibilgailuen gidariak, erabat, debekatua dute.

- Zuzenean edo zeharka, indarrean dauden onetsitako tarifen arabera, legokion baino ordainketa handiagoa eskatzea edo galdatzea.

- Ibilgailua abandonatzea, bidaiarien itxaron-aldian egondakoan.

- Debekatua dago jatea, zerbitzua eskaintzen den denboran, edo ibilgailua gelditua egoten denean, baldin eta bidaiariak barruan baleude.

- Ibilgailua alokatu duen bidaiariarentzat arrotz litzatekeen hirugarren pertsona bat garraiatzea.

27. Artikulua. Ibilbideak.

Auto-taxien gidariak, alokatu duenaren helmugako bidean, biderik edo ibilbiderik laburrena eta zuzenena jarraituko behar du, ez balu, behintzat, erabiltzaileak beste bide bat erabiltzeko borondatea adierazi, edo ibilbiderik laburrena ezin bada erabili, ezinbesteko arrazoiarengatik edo obrak egiten ari direlako.

28. Artikulua. Itxaroteak.

Bidaiariak, aldi baterako, berek alokatutako ibilgailua lagatzen dutenean, eta gidariak haien itzulera arte itxaron behar dutenean, haiei eskatu ahal izango diete, berme gisa, egindako ibilbidearen zenbatekoa gehi orduerdiko geldialdiari dagokiona, baldin eta hiri barruan bada, eta ordubetekoari dagokiona, baldin eta eremuan baldin bada, eta denbora hori agortutakoan, zerbitzutik deslotua izan dela uler lezake.

Gidariak, aldi berean, erabiltzaileari ordainagiria eman beharko dio, eta hor, ibilgailuaren matrikulari dagokion zenbakia eta jasotako kopurua idatziko ditu.

29. Artikulua. Diru itzulketak.

Araudi honek arautzen dituen ibilgailuen gidariekin, une oro gutxienez, 50 Euroko kanbioak izango dituzte. Baldin eta bezeroei diru-txanponak edo bileteak itzultzea beharra izatearren, ibilgailua laga beharko balute, eskainitako zerbitzuaren zenbatekoa ordaintzearen ondorioz, Araudi honetako 8. artikuluan aurrerikositakoa euki beharko da kontuan.

VI. KAPITULUA GERALEKUEI BURUZ

30. Artikulua. Geralekuak.

Basauriko Udal txit Goreneko Alkate Udaltzako ibilgailuen geralekuak, bide publikoan, non egongo diren zehaztuko du, eta baita, geraleku horietan ibilgailuek zein eratan aparkatu behar duten ere, hala ere aurretik, Kontratazio, Zerbitzu eta Trafikoko Batzorde Informatiboak bere irizpena eman beharko du.

31. Artikulua. Geralekuen kokapena eta edukiera.

Geralekuko egonleku guztiak, hala nola horietako bakoitzaren edukiera, aldatuak izan daitezke, aurretik Kontratazio, Zerbitzu eta Trafikoko Batzorde Informatiboak irizpena egin, eta Alkateak erabaki lezakeenean, baldin eta horrekin, zerbitzua hobetzeko aukera egongo balitz, edo trafikoko arazoiek edo antzekoek horrela eskatuko balute, eta horren eraginpean leudekeen industrialarietara, horregatik, ez lukete erreklamaziorik egiteko eskubiderik izango.

32. Artikulua. Geraleku motak.

A motako edo auto-taxi motako zerbitzu publikoen eskaintza, geraleku libreko sistema bidez egingo da. Zerbitzutik libre gera daitezkeen taxilariak, baldin eta, momentu horretan, okupaturik ez legokeen edozein geralekuren ondotik pasako balitz, horretan kokatzeko obligazio saihestezina izango du, modu horretan, geralekuren bat zerbitzurik gabe gera ez lezin.

33. Artikulua. Txandak.

Udalak, gaueko ordutegian eta jaieguneetan, txandazko aldiak erabaki eta ezarri ahal izango

ditu, baita urgentziatzeko kasuetarako, telefono-zerbitzu iraunkorra ere ezarri ahal izango du, eta aldi berean saiatuko da, helburu hori bete behar luketen geralekuen kokagunea, estrategikoa izan dadila, modu horretan, gerta daitezkeen zerbitzu guztiei erantzun ahal izateko, hots, inguruabar horietan, urgentziatzeko izaerarekin eska daitezkeenei erantzuteko.

Udal lizentziaren titularitate duenak, edo auto-taxi ibilgailuaren gidariak, zurutu gabeko arrazoiaren batengatik, legokion gaueko txandan edo jaiegunean, zerbitzurik ez balu eskainiko, arau-hauste larria egin duela ulertuko da.

VII. KAPITULUA TARIFEI BURUZKOA

34. Artikulua. Tarifei buruz.

Aplikagarri diren tarifak, erabiltzaileak, ibilgailu beraren baretik ikusteko moduan, egongo dira. Horietan, aplikagarri diren gehigarriak eta tarifa bereziak egongo dira.

Hiri barruko ibilbideetan, tarifa loteslea eta derrigorrezkoa izango da, bai auto-taxien gidarientzat bai erabiltzaileentzat.

Hiriarteko ibilbideetan, tarifen erregimena, halaber, loteslea eta derrigorrezkoa izango da; hala ere, erabilera eskusibozko hiriarteko garraioak egin ahal izango dira, tarifaren azpitik leudekeen prezio itunduen bidez, eta horrela balitz, taximetroaren tresna funtzionamendutik kanpo eramateko aukera egongo da, baldin eta itundutako prezioa idatziz adierazia egongo balitz, eta zerbitzua egiten den bitartean, aipatu agiria ibilgailuan eramango balitz.

Debekatua geratzen da, esanbidez, indarrean dagoen arautegian aurrikusi gabeko, eta beharrezko litzatekeen administrazio-baimenaren babesik gabeko, gehigarriak kobratzea.

VIII. KAPITULUA PUBLIZITATEA

35. Artikulua. Publizitatea.

Bai trafikoko eta bide-segurtasun gaietan bai publizitate gaietan indarrean dagoen legeriari jarraiki, auto-taxiko lizentziaren titularitatea dutenek publizitate-iragarkiak kontratatu eta

azaldu ahal izango dituzte, bai ibilgailuaren barnean, bai kapoaldean, horretarako aurretik, udalaren baimena izanda.

IX. KAPITULUA
ARAU-HASUTEAK, ZIGORRAK ETA
PROZEDURA
I. Atala

36. Artikulua. Garraiko arau-haustek. Hauste-motak.

Garraio-zerbitzuak erregulatzeko dauden arauen aurkako lege-haustek, hain zuzen, turismoko ibilgailuetan, honela sailkatzen dira: oso larriak, larriak eta arinak.

1. Lege-hauste oso larriak direla jotzen da:

- a) Zerbitzua, beharrezko lizentzia edo baimenik gabe, eskaintzea, edo horiek iraungita daudenean eskaintzea.
- b) Beste pertsona baten izenean emandako lizentzia edo baimenak erabiltzea, edo ibilgailuaren gidaritza, horretarako izendatuta dagoen lizentziaren titular edo gidaria ez den pertsonak batek egiten duenean.
- c) Ikuskapen, zaintza eta kontrol zerbitzuen jarduera egiteari eragozpena edo traba jartzea, modu horretan, legearen arabera esleitura dauzkaten funtzioak egitea galerazten bada.
- d) Lege honek arautzen dituen zerbitzuak eskaintzekoan, legez kontrako egintza penalak egitea, otsailaren 20ko 2/1998 Legearen 18. artikuluan araututa dagoena kontuan izanda.
- e) Ibilgailuaren derrigorrezko aseguruia ez izatea.
- f) Arau-hauste larria egitea, baldin eta hori egin aurreko hamabi hilabeteetan, egilea zigortua izan bada, hain zuzen, bide administratiboan edo/eta bide penalean emandako ebazpen irmoari jarraiki, artikuluko honetako 2. paragrafoko letra berean

tipifikatutako arau-hauste larria egitearren.

- g) Ibilgailua, mozkortuta, edo substantzia estupefazianteen eraginpean gidatzea.

2. Lege-hauste larriak direla jotzen da

- a) Lizentzia eta baimenak dituzten ibilgailuez izan beharrean, zerbitzua beste batzuen bidez eskaintzea, hala nola, gaitasuna ematen duten tituluek barne hartutako lurralde eremua ez betetzea.
- b) Lege honetan araututako jardueren egikaritzara dedikatutako erregimen eksklusibo eta erabatekoa ez betetzea, edo horiek babestu gabeko zerbitzuak eskaintzea, lege horretan, eta horren arauzko garapenean erabakita dagoen bezala.
- c) Behin baimendu ondoren, zerbitzuei hasierarik ez ematea, eta/edo horiek etetzea hirurogei egun naturaleko epean, arrazoiak zuritu gabe.
- d) Zerbitzuari dagozkion kexa eta erreklamazioak egiteko orduan, dokumentazioa ukatu edo trabak jartzea erabiltzaileei. Aipatu erreklamazio edo kexak Administrazioaren eskuetan jartzeko orduan, isilean gorde edo zuritu gabeko luzamendutan ibiltzea, arauz erabakita dagoenaren arabera.
- e) Derrigorrezko zerbitzua eta Administrazioak ezarritako ordutegi eta atsedenaldien koordinazio-erregimena ez betetzea.
- f) Erabiltzaileek eskatutako zerbitzuak ez eskaintzea, eta bidaiariak abandonatzea eskatutako zerbitzua eskaini gabe, hori ez bada behintzat, 4. eta 14. artikuluetan aurrikusitako inguruabarren batengatik, gertatzen.
- g) Tarifei dagokien erregimena ez betetzea.
- h) Zerbitzua ibilbide edo bide desagokietatik egitea, ekonomikoki, erabiltzailearen interesentzat kaltegarri izanda, edo horren esane

kasurik egin gabe, arrazoia zuritu gabe.

- i) Zerbitzua kontratatu duen pertsonarekin zerikusirik ez lukeen hirugarren pertsona batek eserlekuren bat betetzea.
- j) Ibilgailuaren edukiera, plaza indibidual bakoitzeko kontratatzea, aplikagarri den arautegian barne hartzen diren kasuetatik kanpo.
- k) Erabiltzaileei, oinezkoiei edo beste ibilgailuetako gidariei zuzenduta, hitz edo keinu trauskilak erabili eta mehatxuak egitea.
- l) Ibilgailuan utzitako edozein objektu atxikitzea, horren berri eskumena lukeen agintaritzari eman gabe, hurrengo hirurogeita hamabi orduren barruan.
- m) Taximetro eta/edo modulurik ez izatea, hori ez erabiltzea, edo horren funtzionamendua akatsduna izatea, halaber, ibilgailuan instalaturik eramatea derrigorrezkoa litzatekeen, kontroleko edozein tresna edo bitarteko ez izatea, hori faltsutzea edo manipulatzeko, eta aipatu tresnak edo ibilgailuak derrigorrezko diren berrikuspenetara ez eramatea.
- n) Lizentzia eman dionaren udalerritik kanpo bidaiariak hartzea, ez badira, behintzat, aplikagarria den arautegian baimendutako kasuak.
- ñ) Egitea beharrezkoak izan daitezkeen aseguruak ez egitea, lege honetan, eta horren arauzko garapenean aurrikusita bezala.
- o) Baimendutako baino bidaiari gehiago garraiatzea.
- p) Arau-hauste arina egitea, baldin eta hori egin aurreko hamabi hilabeteetan, egilea zigortua izan bada, hain zuzen, bide administratiboan edo/eta bide penalean emandako ebazpen irmoari jarraiki, artikuluko 3. paragrafoko letra berean tipifikatutako arau-haustea egitearren

- q) Gaueko txandan edo jaiegunean, arrazoia zuritu gabe, guardia egiteko obligazioa ez betetzea, ezarrita legokeen arabera egokitu lezaiokenean.

3. Lege-hauste arinak direla jotzen da:

- a) Zerbitzua, arauak eskatzen duten dokumentazio formala ibilgailuan izan gabe, eskaintzea.
- b) Dokumentazioa, ikusteko moduan, ez eramatea, horrela egiteko obligazioa dagoenean.
- c) Administrazioari, zenbait daturen berri ez ematea, nahiz eta ezarrita dagoen gisan, horiek ematea derrigorrezkoa izan.
- d) Erabiltzaileekin eta hirugarren pertsonekin adeitasunik gabeko jokabidea izatea, baina arina delako, lege-hauste larri gisa hartu behar ez denean.
- e) Gaitasuna ematen duten tituluen begiztapena, ezarritako epeetan, ez egitea.
- f) Gidariaren beraren garbitasun pertsonala ez zaintzea, hala nola, ibilgailuaren kanpoko eta barneko garbitasuna ez zaintzea.
- g) Erabiltzaileari, diru metaliko edo bileteen bidez kanbiorik ez ematea, legean ezarrita dagoen kopurura arte.
- h) Aurreko zenbakian aurrikusitako beste edozein lege-hauste, bere izaerarengatik edo ematen diren inguruabarrengatik, baldin eta larri gisa kalifikatu behar ez balitz, hain zuzen, otsailaren 20ko 2/1998 Legearen 14. artikuluan ezarritakoa aplikagarri litzatekeen kasuetan.

II. Atala

37. Artikulua. Zigorrak.

1. Lege-hauste arinak ohartarazpenarekin eta/edo isunarekin, 276,47 eurora artekoarekin, zigortuko dira, eta/edo gehienez hamabost eguneko epean, titulu gaitzailea erretiratzearekin. Larriak, 276,48 eurotik

1.382,33 euro arteko isunarekin, eta/edo gehienez sei hilabeteko epean, titulu gaitzailea erretiratzearekin. Oso larriak, 1.382,34 eurotik 2.764,66 euro arteko isunarekin, eta/edo gehienez urtebeteko epean, titulu gaitzailea erretiratzearekin.

Ezarriko diren zigorren kopurua, aurreko paragrafoan ezarritako mugen barruan, otsailaren 20ko 2/1998 Legean erabakitakoaren arabera mailakatuko dira.

2. Araudi honen arabera jarri daitezkeen zigorrez gain, lege-hauste oso larriak behin eta berriz egiten badira, edo jarritako zigorra hautsiko balitz, titulua gaitzailea kentzea ere ekar lezake horrek.

III. Atala

38. Artikulua. Preskripzioa.

1. Lege-hauste oso larriak hiru urtera preskribatuko dira, larriak bi urtera, eta arinak sei hilabetera.

2. Lege-hauste oso larrien ondorioz ezarritako zigorrak hiru urtera preskribatuko dira, lege-hauste larriengatik ezarritakoak bi urtera, eta arinengatik ezarritakoak urtebetera.

3. Bai lege-hausteen bai ezarritako zigorren preskripzio-epearen neurketari dagokionez, bai epearen etetze eta berriz hasteari dagokionez, otsailaren 20ko 2/1998 Legean agindutakoari egingo zaio kasu.

IV. Atala

39. Artikulua. Eskumena eta prozedura.

1. Lege honetan aurrikusitako zigorren ezartzea, eskumena luketen administrazio-organismoek egingo dute.

2. Lege honetan aurrikusitako bai zigorren ezarpenerako prozedura, bai horien egikaritza, otsailaren 20ko 2/1998 Legean ezarritakora makurtuko da.

Prozedura zigortzailearen barnean, bere kasuan, aipatu legean erabakitakoaren kalterik gabe, har daitezkeen kautelazko neurriak direla eta, esan behar da, baldin eta araudi honetako 29.1.a) eta 29.2.e) artikulutan adierazitako kasuak antzemango balira edozein zerbitzu eskeintzekoan, ibilgailua une horretan bertan

gerarazitzeko agindua eman daiteke, lege-hauste posiblea eragiten duten ingurumariak desagertu arte, eta Administrazioak, zerbitzua hobeto eskaintzeko helburuz, beharrezko neurriak har ditzake.

Aldi bateko xedapena:

Araudi honi onespena ematen zaionetik hasita, hamabi hilabeteko epean, Basauriko Udalak Ordenantza idatziko du, eta horrek arautuko du, zehazki, bederatzigarren artikuluan, eta horrekin bat datozenetan, aipatzen den ordutegiaren kontrolerako sistema.

Amaierako xedapena:

Araudi hau, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo hogeita hamar egunera sartuko da indarrean.